# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## OGASUN ETA FINANTZA SAILA ETA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**91**

**360/1992 DEKRETUA, abenduaren 30ekoa, behi-esne eta esnekien arloan gehigarrizko ariela ezartzearren berariazko arauak ematen dituena.**

EEE 804/68, 857/84 eta 1546/88 Araudiei jarraikiz, behi-esnearen arloa antolatzeko neurriei buruzko otsailaren 11ko 26/1992 Dekretuak gehigarrizko ariela ezartzeko arau orokorrak ematen ditu. Ariela, ezarritako erreferentzia gainditzen duten esne edo esnearen baliokideko kopuruetan izango da ezargarri, abeltzainek erosle bati saldu edo kontsumitzaileei artez-artez egiten dizkieten salmentetan, hain zuzen.

Aipatu Dekretu horretan emandako neurriak berariazko arauen beharrean daude gehigarrizko ariela ezartzeko eta, bestetik, araubide egokia sortu behar da Autonomi Elkartean, esne-arloaren antolapen-neurriak eta zerga kontuetako aginpideak uztartu ahal izateko eta arlo horri buruzko Europako legeria barneratzeko, Estatuko Administrazioarekin lankidetzaz eta komunztaduraz ihardunez, bakoitza bere aginpideez baliatuz.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Sailaren eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren proposamenez, Jaurlaritza-Kontseiluak 1992ko abenduaren 30ean egin duen bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Esnea eta esnekiak ekoizten dituzten abeltzainei erreferentzia-kopuruak esleitzeko ondorioetarako, hurrengo zertzelada hauek hartuko dira kontutan: erosleei eta artez-artez kontsumitzaileei saldutako esne eta esnekiak, gehigarrizko arielaren zortzigarren aldian, hots, 1991ko martxoaren 31 eta 1992ko apirilaren 1a bitartean, eta gainera, transferentziak, ihardueera bertan behera uzteak, zuzeneko salmenten eta erosleei bidalitako emanaldien arteko eskualdaketak edo Europako araubidean bilduriko beste zenbait arrazoi, egoki den murrizpen-koefizientearen bidez doituak, bermaturiko guztirako kopurutik gora joan ez dadin.

*2. atala.*– 1.– Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzari dagokio erreferentzia-kopuruen esleipen eta berresleipen-arloko kudeaketa, baita Estatuko Administrazioarekin lankidetza eta komunztadura eramatea ere.

Aipaturiko Zuzendaritzak kudeatuko du, era berean, autonomiako gordailua.

2.– Erreferentzia-kopuruak eskualdatzen dituzten ekoizleek ezin izango dute berenganatu fondo publikoen kontura askaturiko erreferentzia-kopuruetan jatorria duten dohaineko esleipenik, ezta bermaturiko guztirako kopuruaren zabalkuntzarik ere.

## DEPARTAMENTOS DE HACIENDA Y FINANZAS Y AGRICULTURA Y PESCA

**91**

**DECRETO 360/1992, de 30 de diciembre, por el que se establecen normas específicas de aplicación de la tasa suplementaria en el sector de la leche de vaca y productos derivados.**

El Decreto 26/1992, de 11 de febrero, sobre medidas de ordenación del sector de leche de vaca, en aplicación de los Reglamentos CEE 804/68, 857/84 y 1546/88, establece normas generales para la aplicación del régimen de tasa suplementaria a cargo de los productores de leche de vaca sobre las cantidades de leche y de equivalente de leche entregadas a un comprador o vendidas directamente al consumo que sobrepasen las cantidades de referencia asignadas.

La regulación efectuada en dicho Decreto precisa de normas específicas para la aplicación de la tasa suplementaria y, por otro lado, ha de procederse a establecer la regulación organizativa necesaria para articular en el ámbito de la Comunidad Autónoma las medidas de ordenación del sector y las competencias en materia fiscal y tributaria, así como instrumentar el cumplimiento de la legislación comunitaria en la materia, en el marco de un sistema de colaboración y coordinación con la Administración Central del Estado en orden al correcto ejercicio de las competencias respectivas.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Hacienda y Finanzas y de Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión del 30 de diciembre de 1992,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– A efectos de asignación de las cantidades de referencia a los productores de leche de vaca y productos lácteos derivados, se tendrá en cuenta las entregas a compradores y las ventas directas a los consumidores de leche de vaca y productos lácteos derivados en el octavo período de tasa suplementaria que comprende entre el 31 de marzo de 1991 y el 1 de abril de 1992, así como las transferencias, abandonos de producción, trasvases entre ventas directas y entregas a compradores u otros motivos contemplados en la normativa comunitaria, ajustadas mediante el coeficiente de reducción procedente a fin de no exceder la suma global garantizada.

*Artículo 2.*– 1.– Corresponde a la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural la gestión en materia de asignación y reasignación de cantidades de referencia, así como la colaboración y coordinación con la Administración Central del Estado en dicha materia.

Dicha dirección sera así mismo quien gestione la Reserva Autonómica.

2.– Los productores que transfieran cantidades de referencia no podrán beneficiarse de asignaciones gratuitas procedentes de las cantidades de referencia liberadas con cargo a fondos públicos o de ampliaciones de la cantidad global garantizada.

*3. atala.*– Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzari dagokio behi-esnearen gaineko gehigarrizko arielaren kudeaketa, zaintza eta bilketa, borondatezko aldian, EEE 857/84 eta 1546/88 Araudietan eta haiekin loturiko xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Gehigarrizko arielaren derrigorrezko diru-bilketa Ogasun eta Finantza Sailari dagokio.

*4. atala.*– Euskal Autonomi Elkarteko behi-esnearen ekoizleei ezarri beharreko gehigarrizko arielaren inguruan, batzorde bat eratuko da komunztadura eta jarraikuntza egiteko, kideak honako hauek izanik:

– Nekazaritza eta Arrantza Saileko bi ordezkari, haietako bat batzordeburu izendatuko du Sailburuak.

– Ogasun eta Finantza Saileko ordezkari bat.

– Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialdeetako Foru Aldundietako Nekazaritza Sailetako ordezkari bana.

– Idazkari bat, hizpidea izanik baina hautespiderik gabe, Nekazaritza eta Arrantza Saileko teknikarien artean hautatua.

*5. atala.*– 1.– Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzak kitatuko dizkie erosleei, ekoizleen elkargoei eta zuzeneko salmentako ekoizleei gehigarrizko ariela hamabi hilaren aldi bakoitzeko azkenean, ekoizle bakoitzak urteko duen erreferentziatik gora atera dituen behi-esne eta esnekien arabera, Europako araubideak ezarritako konpentsazioak kontutan hartuz. Aipaturiko erosle, elkargo eta ekoizleak sujeto pasibo gisa geratuko dira behartuta ordaintzera dagozkien diru-kopuruak.

2.– Erosleek ekoizleengandik jasoko dituzte gehigarrizko arielak eta haien kitapena 1 puntuaren arabera egingo da.

*6. atala.*– 1.– Erosleen, ekoizle-elkargoen eta zuzeneko salmentako ekoizleen aitorpenak jasotzeko erantzukizuna Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzak izango du, EEE 1546/88 Araudiaren 15 atalaren 1 eta 3 puntuetan eta 16 atalaren 1 puntuan ezarritakoa aintzat hartuz.

2.– Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzak eta Zerga-Administrazioko Zuzendaritzak gehigarrizko arielari dagokion aitorpenen zehaztasuna frogatzeko beharrezko izan daitezen ikuskapen eta kontrolak eramango dituzte aurrera, EEEko 1546/88 Arautegiaren 14. eta 19. ataletan ezartzen denaren arabera.

*7. atala.*– 1.– Gehigarrizko arielaren hamabi hilabeteko epealdi bakoitzaren amaieratik hasi eta hurrengo berrogeita bost eguneko epean, erosleek eta ekoizle-elkargoek hamabi hilabete horietan emandako esne eta esnearen baliokideak egiaztatuko dituen aitorpena aurkeztuko diote Nekazaritza eta Baserrialde-Garapenerako Zuzendaritzari, eta epealdi horretarako ezarritako urteko erreferentzia kopurua gaindi ditzaten kopuruak ere egiaztatuko dituzte, koipearen bataz besteko kopurua ere adieraziko dutela.

*Artículo 3.*– Corresponde a la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural del Departamento de Agricultura y Pesca la gestión, control y recaudación, en período voluntario de la tasa suplementaria de leche de vaca, de acuerdo con lo dispuesto en los Reglamentos CEE 857/84 y 1546/88 y disposiciones concordantes.

La recaudación en vía ejecutiva de la tasa suplementaria corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Artículo 4.*– Se establece una Comisión para la coordinación y seguimiento del sistema impositivo adicional (tasa suplementaria) a los productores de leche de vaca de la Comunidad Autónoma del País Vasco, integrada por:

– Dos representantes del Departamento de Agricultura y Pesca, uno de los cuales será designado Presidente por el Consejero de dicho Departamento.

– Un representante del Departamento de Hacienda y Finanzas.

– Un representante de cada uno de los respectivos Departamentos de Agricultura de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia.

– Secretario, con voz y sin voto, designado entre los técnicos del Departamento de Agricultura y Pesca.

*Artículo 5.*– 1.– La tasa suplementaria será liquidada al final de cada período de doce meses, que termina el 31 de marzo de cada año, por la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural a los compradores, agrupaciones de productores y a los productores de venta directa, en función de las cantidades de leche de vaca y productos lácteos derivados que cada productor haya entregado por encima de su cantidad de referencia anual, durante dicho período, teniendo en cuenta las compensaciones establecidas por la normativa comunitaria. Los referidos compradores, agrupaciones y productores quedarán obligados al pago de las cantidades correspondientes en concepto de sujetos pasivos.

2.– Los compradores percibirán de los productores afectados las tasas suplementarias cuya liquidación se efectuará conforme al apartado 1.

*Artículo 6.*– 1.– La Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural será responsable de la recepción de las declaraciones de los compradores, de las agrupaciones de productores y de los productores de venta directa, de acuerdo con lo establecido en los apartados 1 a 3 del artículo 15 y en el apartado 1 del artículo 16 del Reglamento CEE 1546/88.

2.– Las Direcciones de Agricultura y Desarrollo Rural y Administración Tributaria llevarán a cabo las inspecciones y controles necesarios para comprobar la exactitud de las declaraciones relacionadas con el régimen de tasa suplementaria, de acuerdo con lo establecido en los artículos 14 y 19 del Reglamento CEE 1546/88.

*Artículo 7.*– 1.– Los compradores y las agrupaciones de productores dentro de los cuarenta y cinco días siguientes al final de cada período de doce meses de tasa suplementaria, presentarán ante la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural una declaración haciendo constar las cantidades de leche y de equivalente de leche entregadas en total durante el período de doce meses en cuestión, así como las cantidades que sobrepasen la cantidad de referencia anual de dicho período, indicando su contenido medio en grasa.

2.– Gehigarrizko arielaren hamabi hilabeteko epealdi bakoitzaren amaieratik hasi eta hurrengo bi hilabeteko epean, kontsumorako esnea eta esnekia zuzenean sal dezaten ekoizleek, epealdi horretan saldu dituzten esne eta esneki kopuruak egiaztatzen dituen aitorpena aurkeztuko diote Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzari.

*8. atala.*– 1.– Gehigarrizko arielaren epealdi bakoitzaren amaieratik hasi eta hurrengo berrogeita bost eguneko epean, erosleek eta ekoizle-elkargoek, lehenengo seihilabetekoan emandako esne eta esnearen baliokideak egiaztatuko dituen aitorpena aurkeztuko diote Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzari, dagokion epealdirako urteko erreferentzia kopuruan duten portzentaia ere egiaztatuko dutela.

2.– Nekazaritza eta Arrantza Sailak gehigarrizko arielaren aurrerakina jasotzea ezar dezake aldi bakoitzeko lehen sei hilabeteen ondoren eta erosleek, ekoizleen elkarteek eta salmenta zuzeneko ekoizleek egin beharreko seihilabeteko aitorpenetan oinarrituta.

*9. atala.*– 1.– Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzak, jasotako aitorpenetan oinarrituta eta EEE 957/84 Araudiaren 1. ataleko 1. puntuan zehaztutakoarekin bat etorrita, norbanako erreferentzia-kopurua gainditzen duten esne eta esnearen baliokideen kopuruaren gaineko gehigarrizko arielarengatik ordaindu beharrekoak kitatuko dizkio ekoizle bakoitzari, bataz besteko koipe edukiaren aldaketak direla eta, behin-behineko egokitzapenak egin ondoren, EEEko 1546/88 Araudiaren 12. atalean konpentsazioei edo Elkarteko araudian aurrikusitako bestelako zioei buruz ezarritakoaren arabera.

2.– Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzak tasa osagarria ordaindu beharra duten kitapenen berri emango die erosleei, ekoizleen elkarteei eta salmenta zuzeneko ekoizleei.

*10. atala.*– Erosleek, ekoizleen elkarteek eta salmenta zuzeneko ekoizleek hamabi hilabeteko aldi bakoitzaren azken hiru hilabeteetan Nekazaritza eta Baserrialdeko Garapenerako Zuzendaritzak eginiko kitapenen ondoriozko kopuruak zerga-bilketarako kontu murriztuetan sartuko dituzte, horiek zerga-bilketarako araudian ezarritakoari jarraiki baimena duten finantza-erakundeetan irekiko direla, eta horretarako ezarriko diren kobrantza eta ordainketa-dokumentuak erabiliko dituzte.

Jasotako diru-kopurua, egin beharreko konpentsazio guztiak egin eta gero, Estatuko Administrazio Zentralera eskualdatuko da, laguntza eta koordinaziorako erabakiko den bidetik.

*11. atala.*– Ekoizleek esne eta esnekiak erosle bati baino gehiagori saltzen badizkiote, Nekazaritza eta Baserrialde-Garapeneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko diote, eta erosleak zein diren adierazi. Era berean, gehigarrizko arielaren aldi bakoitzean izandako erosle-aldaketak jakinarazi beharko dizkiote, ekoizleen jakinazpenez gain. Erosleak, hiru hilean behin, ekoizle saltzaile berririk ba ote duen edo lehenagokoren batek berari saltzeari utzi ote dion jakinarazi beharko du.

2.– Los productores que vendan directamente al consumo leche y productos lácteos, dentro de los dos meses siguientes al final de cada período de doce meses de tasa suplementaria, presentarán ante la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural una declaración en la que se haga constar las cantidades de leche y productos lácteos vendidos durante dicho período.

*Artículo 8.*– 1.– Los compradores y las agrupaciones de productores, dentro de los cuarenta y cinco dias siguientes al final del primer semestre de cada período de tasa suplementaria, presentarán ante la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural una declaración haciendo constar, las cantidades de leche y de equivalente de leche entregadas durante ese primer semestre, así como el porcentaje que estas entregas representan sobre su cantidad de referencia anual, para el período correspondiente.

2.– El Departamento de Agricultura y Pesca podrá establecer la percepción de un anticipo de la tasa suplementaria después de los seis primeros meses de cada período y en base a las declaraciones semestrales que deben efectuar los compradores, las agrupaciones de productores y los productores de venta directa.

*Artículo 9.*– 1.– La Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural en base a las declaraciones recibidas y de acuerdo con lo establecido en el apartado 1 del artículo 1 del Reglamento CEE 857/84, liquidará a cada productor los pagos debidos por tasa suplementaria sobre las cantidades de leche y de equivalente de leche que excedan la cantidad de referencia individual y después de su eventual corrección por variaciones en el contenido medio de grasa, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 del Reglamento CEE 1546/88, por compensaciones o por otros motivos previstos en la normativa comunitaria.

2.– Las liquidaciones de las que resulte obligación a pagar tasa suplementaria serán notificadas por la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural a los compradores, a las agrupaciones de productores y a los productores de venta directa.

*Artículo 10.*– Los compradores, las agrupaciones de productores y los productores de venta directa, dentro de los tres meses siguientes al final de cada período de doce meses ingresarán las cantidades que resulten de las liquidaciones efectuadas por la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural en cuentas restringidas para la recaudación que, de acuerdo con lo dispuesto en la normativa sobre recaudación, sean abiertas en Entidades financieras autorizadas, utilizando para ello los documentos de cobro o de pago que al efecto se establezcan.

Las cantidades recaudadas, efectuadas las compensaciones oportunas, serán transferidas a la Administración Central del Estado de acuerdo con los procedimientos de colaboración y coordinación que se establezcan.

*Artículo 11.*– Los productores que entreguen leche y productos lácteos a varios compradores deberán comunicarlo a la Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural, señalando la identidad de los mismos. Igualmente los productores deberán comunicarle los cambios de comprador o de compradores que efectúen durante cada período de tasa suplementaria con independencia de las comunicaciones de los productores, los compradores deberán transmitir trimestralmente las altas y bajas de productores proveedores que se hayan producido.

*12. atala.*– Aitorpenetan jarritako datuak gezurrezkoak baldin badira, edo erosle nahiz ekoizleek gehigarrizko arielaren araudia betetzen ez badute, zerga-araubidearen araberako zigorra izango dute.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Ogasun eta Finantza Sailburuak eta Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak dekretu honetan jasotakoa bete eta betearazteko ahalmena dute, beraien aginpideen arabera.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko abenduak 30.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

Nekazaritza eta Arrantza Sailburua,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

*Artículo 12.*– La falsedad de los datos consignados en las declaraciones o el incumplimiento por parte de los compradores o de los productores de la normativa correspondiente al régimen de tasa suplementaria será sancionada con arreglo a lo dispuesto en la normativa tributaria.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta a los Consejeros de Hacienda y Finanzas y de Agricultura y Pesca para el desarrollo y aplicación, en el ámbito de sus respectivas competencias, de lo previsto en el presente Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

Vitoria-Gasteiz, 30 de diciembre de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
JOSE LUIS LARREA JIMENEZ DE VICUÑA.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak
## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### OSASUN SAILA
***(Osakidetza)***

**92**

1417/1992 ERABAKIA, Osakidetzako Zuzendari Nagusiarena, Gipuzkoako Barrutiko Zuzendaritzako Langilegoaren Zuzendariorde-lanpostua betetzeko Carlos Beitia Fernández jauna izendatzen duena.

Zuzendaritza Nagusi honen irailaren 24ko 1125/92 Erabakiz, Gipuzkoako Barrutiko Zuzendaritzako Langilegoaren Zuzendariorde-lanpostua (kodea:412201) izendapen iarezko sistemaz betetzeko deialdia (1992ko urriaren 14ko EHAA, 200 zk.) egin zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu denez, lanpostu hori betetzeko izangaiek aurkeztu dituzten agirien azterketa egin denez eta, curriculum vitae-n sartu diren merezimenduen arabera, baldintza profesionalen baloraketa egin denez.

Honako hau kontutan hartuta: aurkeztu diren agiriak aztertu ondoren, Carlos Beitia Fernández jauna dela deialdiaren gai den lanpostua betetzeko eskatzen den perfilari hobekien egokitzen zaiona eta lanpostu hori betetzeko kualifikaziorik egokiena duela.

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD
***(Servicio Vasco de Salud)***

**92**

RESOLUCION 1417/1992, del Director General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, por la que se nombra a D. Carlos Beitia Fernández para desempeñar el puesto de Subdirector de Personal de la Dirección de Area de Gipuzkoa.

Vista la convocatoria para cubrir, por el sistema de libre designación, el puesto de Subdirector de Personal de la Dirección de Area de Gipuzkoa (Código:412201), publicada en el B.O.P.V. n. 200, de 14 de octubre de 1992, mediante Resolución n. 1125/92, de 24 de septiembre, de esta Dirección General.

Resultando que finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por el aspirante al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Currículum Vitae».

Considerando que a la vista de la documentación presentada, D. Carlos Beitia Fernández se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.